

gaurkoa

**A**ste hauetan ikusten ari gara ikusita, benetan sor daiteke gugar zalantza hau noraino jaitsi beharko ote dute (gure) agintari autonomikoek lotsa apur bat bederen senditzeko?

Guk dakigularik, Hego Euskal Herriaren 1978ko Konstituzioa dago indarrean.

Eta Carta Magna deritzon horrek markatzen du gurean zer dugun zilegi, eta zer debekua.

Muga horiek non dauden "Preámbulo"tik beretik jakin daitezke: «*Es LA Nación Española la que en uso de su soberanía decide...*»

«*Art.1 -La soberanía nacional reside en EL pueblo español.*»

«*Art.2 -La Constitución se fundamenta en la indisoluble unidad de LA Nación española, patria común e INDIVISIBLE de todos los españoles.*»

Honen ondorio zuzena, jurista guztiek ahobatez diotenez, hauxe da: Auto-Determinazio Eskubidea aldarrikatzen duten bi Itun Internazionalak (1966ko Abenduaren 16koak) legetik AT daudela Espainian.

Madrileko Senatuak, hain zuzen, 1978an bertan, ezeko borobila eman zion Auto-Determinazioari buruzko aipamenari. Baikorrenen zalantzarako xirrikituak oro ezetsiz.

Militar hark esan zituen hitzak gogoratuz, «*España no está dispuesta a perder ni un solo milímetro de tierra española.*» Eta handik urte gutxitara Perejil harraitzeko balentria irri-militarra ezagutu dugu. Txan-txarrik ez!

Espainiar lurraldetasun sakratuari dagokion alor honetan, espainiar naziokeriaren norgehiagoka errabiatuan, elkar bultzaka, bat egiten du PSOEak PParekin.

Eta Rouco Varela fazistaren bedeinkazioa ez da

Txillardegia

## Anamnesia

behin ere falta (Almudenaren ere ez, jakina) separatismoaren kontrako eskomiku ozenak botatzerakoan. Francoren garaietan bezalaxe: ezpata eta aldarea, bat.

Hori bakarrik ez. Pacto Anti-Terrorista delakoan funtsaturik, oraintxe egin dute bat berriz ere PSOEak eta PPak, 50.000 euskalduni beren eskubide hiritarrik ukatzeko.

Hots, argi ibili: Ezker Abertzale ofiziala Hautes-

kunde Autonomikoetan at uzteko deliberoa hartua dago Madrilen nabarmenki. Eta «*alternancia democrática*»-ren ohoretan, «*Tripartito Separatista*» bota, eta Lakuan PSOE-PP *jaurlaricha norteño* bat ezartzeko plana dago. Garbi.

PNVa ez al da honetaz jabetzen? Ezina. Hortaz, zer? Zertan ari da?

Beren botoa ondoko Hauteskundeotan ematerik ez dagoen abertzale mor-

doa dago Ibarretxeren buruan. Beronen Plana horretara dator.

Gauza nabarmena baita Madrileko irazkitik ez dela sekula pasako. Ez da posible PNVkoak honetaz ez konturatzeko.

Oraindik larriago.

Zeren Konstituzioan esana baitago Armada-ren eginkizuna dela (Título VIII) Estatuaren Batasuna bermatzea. Eta Erregea baita berme goren horren

norkuntza: «*el Rey es el símbolo y el garante de la unidad y de la permanencia del Estado.*»

Zertara datoz, beraz, jai giroko irribarreak, oturuntzak eta txaloak? Zertara bidaia?

Gure herri honen atal abertzalea (bestea ez, bada-kigu) zapalketak eta legetorkizunik-ez horrek este-katzen duten ure larri honetan, zertara joan da Ibarretxe Madrileko Ezta

hanpurus horretara gure izeanen? Nola nahi du guk txango sasi-folkloriko hori hartzea? Nola hartuko dugu bada ostiko bat potroetan? Ez gaude amnesia jot.

Baina behin eta berriz iraindutako herri honetan Madrileko balentria okaztagarria ez dugu aisa ahaztuko.

Eta ondoko aste eta hila-beteetan, etsi gabe, fartsanteak eta traidoreak beren poltronetatik bota arte egingo dugu lan. Sobera ditugu aberrigintzan. Almudenan gelditzen badira, hobe. Lasaitu ederra hartuko genuke.

Abertzaleok elkar hartzea aski dugu. Beldurrik gabe, gauden gu! • •



koma

### Elegir

No se trata de elegir entre París y Madrid. No hay opresión buena y el centralismo chusco y patán de la metrópoli peninsular es digno compañero del jacobinismo satisfecho y empalagoso de la *grandeur*. Pero, puestos a elegir, muchos vasos del sur preferirán votar con papeletas del norte. Allí, por lo menos, cuidan las formas. •

Olaso

jo puntua

Sonia Gonzalez • Idazlea

### Legalak

«Europa» esan eta ze gauza urruna egiten zaigun denoi. Eta geografikoki Europa bertan dagoela esan genezakeen arren, pertzepzio hori ondo zuzena da, Europako estatuak sukaldean koinatzen ari diren guztitik herritarrok ondo urrunduta edukitzeaz ederto batean arduratzen baitira.

Zerbait egin behar, beraz. Ingurura begiratu eta bertan zeuden aukerak konbentzitzen ez gintuztela ikusita, geure aukera propioa osatzeari ekin genion.

Ilusio handiz, gainera, aukera hori Euskal Herriarena ez ezik, euskal herriarena ere egiteko asmoz. Eta herriarena diot gu geu garelaok herritarrik: denok gara langileak, denetarik dagoen auzoetan bizi gara eta ez auzo erresidentzialetan, ez dugu beste batzuek ordaindutakota 150 euroko

afaririk egiten, gutako zenbait autobusean ere mugitu behar gara leku batetik bestera, kotxerik ere ez baitauekagu, eta logurari osten dizkiogu orduak hemen eta han egon ahal izateko. Eta horregatik hasi ginen ilusio eta indar handiz, herritarren eskubideak defendatzea herritarren esku egon behar dela sinisturik.

Eta, gertatuak gertatu, oraindik ere ekiten eta ekingo diogu indar eta ilusio berberaz, espainiar Gobernuak eta bere epaileek «justizia» egin duten arren. Herritarrok suposatzen dugun arriskutik salbatu direla uste omen duten arren. «Ilegalak» etiketa asmatu eta harrabada atzera eragingo gaituztela uste izan dute. Gure asmoa euskal herritarren eskubideak defendatzea baldin bazen, norik sinis lezake beste eskubide za-

palketa batek geldiaraziko gaituenik?

Eta berdin zein den gobernutik pentsamendu, eskubide eta ideien legitimotasuna zapuztu nahi duena, berdin zelako itxurak eman gura dituen, aurrerakoitasuna, «talantea», edo nahi duten berba ipinita ere. Mozorroak beti jausten dira, PEK, Partido Españolak -obrero edo sozialista izatea zer den ideiarik ere ez baitauekate- argi utzi du demokraziatzat zer ulertzen duen, euren aurrekoek legez, nazio eraikuntza, konponbide, euskal asmo usaina darion edozeren kontra jotzea.

Eurak dira ilegal bakarrik. Gure aukerak legaltasun eta legitimotasun osoa dauka Euskal Herriaren eta Europaren aurrean. Heriotza politik zigorrera kondenatu gura gaituzten arren, nazioa gara eta nazio moduan jarduteko aukera daukagu. Guk beti izan dugu konbentzimendu hori, baina orain gero eta argiago dago horixe dela gure herriak ezinbestez egin beharreko bidea. Euren estatusa jaio baino hainbat eta hainbat mende arinago bertan baginen gu. Ez dira nahiko. Eta ez dira sekula izango. •

